

Antxiñako fotografixia



Lagunaren despedidia

Danak etziran Oñatin jaixuak, baiña gehixenak bai. Kuadrilla batekuak ziran eta alkarrekin ikasten ziharduein Benediktinen kolegiñuan. Fotografixia atarateko arrazoia, berriz, zera izan zan: euretariko bat Ameriketara zoiala, **New York**-era, han bizi ziran bere gurasuenkana. Orain makiñatxo bat faten da Estatu Batuetara eta beste leku askotara, baiña sasue haretan New York urrin eguen. Horregatik alkartuko ziran neskatilla oñatiarrok unibersidade aurrian euren laguna, Mari Tere Arana, despediaiterra.

Argazkixa 1957kua da, eta ixa berrogeita hamar urte pasau diranian, orduan neskatillak ziran hareittako banaka batzuek bakarrik jarraitetan daue gure herrixan. Bat kenduta danak bizi dira, baiña Oñatittik kanpora gehixenak: **Bitorixan, Donostian, Iruñean, Ondarruan, Reinosan, Madrillen**, eta urriñago be bai, **Txekian** edota **Mexikon**. Eta gero txantxikuarrok hemen bertan gaketako jokera haundixa dakogula dixue! Leikiena da batzuetan, baiña ezin esan beti hala gertaketan danik. Goititik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue orduko neskatillok:

Goiko illaran: Arantxa **Balzategi**; Mari Karmen **Agirrebengoa**; Maria Angeles **Alzelai**; Maribi **Arrazola**; Mari Tere **Arana**; Pilar **Iriondo**; Arantxa **Murgiondo**; Maixita **Igartua**; eta Ana Mari **Lizarralde**.

Behoko illaran: Mari Kruz **Igartua**, Elena **Irizar**; Rosa Mari **Domínguez**; Mari Sol **Aiastui**; Teretxu **Urtaza**; Manttoni **Arzelus**; eta Rosita **Arregi**.

J. E.

Fotografixia Enrike Aranaskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Enrikek ez ezik, Ana Mari Lizarralde eta Teretxu Urtazak be emun doskue. Eskerrik asko dano!